
Euskara bermatuko duen eskola gizarte eleanitzean: hizkuntza komunitatearen indartzerako funtsezko kapitala 2040 urtera begira¹

Garaio, Beñat²

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
benat.garaio@ehu.eus

H

Hezkuntza sistema anitza dugu Euskal Herrian, eta horrela da Euskal Autonomia Erkidegoan ere. Sare publikoetako hainbat ikastetxek prestigioa galdu dute azken urteetan, baliabide falta eta ikasleen jatorria, tarteko. Edonola ere, eskola horietako asko hainbat berrikuntza garatzen ari dira egoera hori iraultzeko. Hori dela eta, "eskola arrakastatsu batzuk" hautatu eta beraien aktiboak identifikatu dira artikulu honetan. Ondoren, 2040ra begirako eszenarioak aurreikusi dira eta eszenario horietara iristeko kapitalak zeintzuk diren zehaztu da. Amaitzeko, artikulu honen oinarria den egilearen doktoretza-tesiaren zertzelada batzuk gehitu dira eranskin gisa.

Giltza-hitzak: Hezkuntza. Euskara. Eleaniztasuna. Aktiboak. Ekinbideak. Kapitalak.

1. Sarrera

Europako herrialde gehienetan gertatu diren aldaketa sozioekonomikoak direla medio, gizarteak zeharo aldatu dira, eta ezinbestean, hezkuntza sistemaren erronka eta behar berriak sortu dira (May, 2013).

Eleaniztasuna ohiko errealitatea bihurtu da eta egun ez dago Europan estaturik bere lurraldean hizkuntza bat eta bakarra duenik (Idiazabal, 2011). Gaur egungo euskal gizartearen errealitate linguistikoa ere anitza da, esaterako, EAE eta Nafarroan bertako hizkuntzez gain, ehunetik gora hizkuntza identifikatu baitira (Uranga et al., 2008). Horietako asko ohiko komunikazio-tresna gisa erabiltzen dira eta harrera gizartean maila askotan eragiten dute.

Europako zenbait lekutan hizkuntza aniztasunari lotuta hizkuntza gutxituak babesten dituzten hizkuntza politikak garatu dira (Kraus, 2008) eta lagungarriak izan dira hezkuntza sistema eleaniztetan jatorrizko hiztunek erabilerari eutsi diezaioten eta hiztun berriak sor daitezen (Gorter et. al, 2014; Ortega et al., 2016).

Europako hezkuntza sistema askok, gizartearen eskari berriei erantzunez, egoera honetara egokitzeke pausuak eman dituzte, inklusio programak eta hainbat hizkuntzetan hezkuntza

sistemari buruzko gidak argitaratuz, ikasle etorri berrien harrera egiteko programak diseinatuz, e.a. Eskolak ardua eta erronka garrantzitsuak ditu gaur egungo eleaniztasuna eta gizartearen integrazioa bermatzeko, baita euskararen kasuan ere (ikus euskara, eskola eta etorkinak, Zalbide, 1998; Kasares, 2012; ikus eskola eta inklusioa, Valcarce Fernández, 2011).

2. Lan honen helburua

Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen (e5) egitasmoan jorratu diren eztabaidekin aurreko lerroaldeetan aipatutakoa lotzeko, 2040 urterako euskal eskolak aurrez aurre dituen erronka batzuei modu egokian erantzutea komeni da, izan ere, D ereduko eskola eleanitzak egon badaude, segregazioari iskin egin diotenak eta aniztasun egoera horretan emaitza akademiko eta linguistiko onak lortu dituztenak. Honenbestez, euskararen komunitateak apustu argi bat egin beharko luke hezkuntza sisteman gizarte-talde guztiak euskararen bitartez integratu eta belaunaldi berri guzti-guztiak euskaldundu eta aktibatzeke. Azpiegitura kapitalaren barruan landu beharreko aktibo funtsezkoa dela uste dugu, baina baita giza- eta gizarte kapitalekin lotura handia duena.

3. Gaur egungo egoera

Esan bezala, euskal eskolaren helburua euskararen biziberritzea eta gizarte-taldeen integrazioa dira, edo behintzat horrela izan beharko luke Euskararen Legea (legearen adiera laburtua erabiliz) eta Heziberri bezalako dokumentuetan baieztatzen denari jaramon eginez. Errealitatea Euskal Autonomia Erkidegoan, ordea, bestelakoa da, izan ere, 1) D ereduak ez du bermatzen ikasle guztien euskara maila egokia, beraz, zer esanik ez A eta B ereduekin; eta 2) integrazioerik ezin da gertatu eskolak segregatzen ari direnean. Segregazio edo “ghettizazioaren” prozesu hau hirigune handietan gertatzen ari da, batik bat, eta honen arabera, maila sozioekonomiko eta jatorri soziokultural jakinetako taldeak eskola batean edo bestean taldekatzen ari dira. Hau honela, etorkin jatorriko ikasleak, gehienak estratu sozioekonomiko baxuetakoak, maila bereko ikasleekin elkartzen dira. Bien bitartean, klase ertaineko ‘euskaldun txuriak’ beste eskola batzuetan elkartzen dira.

Banaketa honek, bistan da, bi ondorio garbi ditu: alde batetik, euskara ezin da biziberritu, “eskola ghetto” horietan ez baitago ia etxetik euskaldunak diren familiarik; eta bestalde, gizartearen kohesionatu baino, urruntzen ari da.

Baina e5 egitasmoan ez dira kasu ezkorrak eta arazoak azpimarratzen, horren kontrakoak baizik. Eta segregazioa amaitu behar dela aldarrikatzen dugun arren, bien bitartean ghetto-eskola batzuek egoera irauli dute eta bizikidetzeta, hizkuntza eta eskola-emaitza onak lortu dituzte. Esaterako, Kataluniako 2016-2017 ikasturteko ikastetxerik onena segregatutako Mare de Déu de Montserrat ikastetxea izan da, Terrassa herrian kokatutako ghetto eskola bat.

Gurean ere horrelako kasuak aurki daitezke eta doktoretza tesi honetan eskola horren bilakaera ‘arrakastatsuen’ atzean zer dagoen ikusi nahi genuen, neurri batean e5-eko metodologia apreziatiboa jarraituz.

4. Eskola arrakastatsu hauen aktiboak

Arakatzeko Apreziatiboa metodologia erakunde baten indarguneak eta aukerak identifikatzeko tresna da (Basté, 2015) eta horixe erabili da e5-en. Esan bezala, tesi honetarako ere tresna ezin aproposagoa iruditu zaigu eta huraxe erabili dugu Gasteizko D ereduko eskola publiko segregatu batzuk aztertzeke. Are gehiago, Botello eta enparauek (2013) diagnostikoa egiteko “aktiboen mapeoa” proposatzen zuten, eta hori egingo dugu hain juxtu, galdera apreziatiboetatik abiatutako aktibo/indarguneen mapeo bat eskola-arrakastatsu horien nondik norakoak hobeto ezagutzeko.

Eskoletako irakasle, ikasle, familiak eta aisialdi taldeko langileak elkarrizketatu ondoren, ikusi dugu, guk aztertutako eskoletan behintzat, faktore batzuk errepikatzen direla. Faktore edo aktibo horiek dira, hain juxtu, eskola horietako arrakasta ahalbidetzen dutenak eta aktibo horiekin kontatu behar dugu etorkizunera begira eskola-eredu hau indartu nahi baldin badugu.

Aipatuko dugun lehenengo aktiboa eskolak bere auzoarekin duen elkarreragina da, izan ere, askotan entzun izan dugu “eskolak bakarrik ezin du”, baina komunitatearen hauspoa duenean, orduan eskolaren indarra biderkatu egiten da. Bigarrenik, guraso-talde aktibo bat egon behar du eskola, auzo eta komunitateko kideen arteko zubi-lana egin eta lanerako

giro kitzikagarria sortzeko. Ikusi dugu, gainera, klase ertaineko guraso euskaldun aktiboenak atzerritar jatorriko guraso errektibo batzuekin elkartean betetzen dela baldintza hori, normalean. Hirugarrenik, eskola barrutik ere bultzada egon behar du, eta hori Zuzendaritza eta Irakasleen klustroak egiten du posible. Profesional talde honek egonkortasuna, baliabideak, formakuntza, jakin-mina eta lotura pertsonala izan behar ditu eskolako egitasmoarekin eta bertako kideekin. Laugarrenik, berrikuntza pedagogikoa aipatu nahiko genuke, izan ere, eta eskola kontzertatuek prestigioa bereganatu duten honetan, eskola publikoak prestigioa lortzeko biderik eraginkorrena da orain arteko metodologia tradizionalak irauliko dituen ikuspegi bat lantzea. Bukatzeko, eta denetan arrazoi garrantzitsuena, eskola batek, D eredu eskaintzeaz gainera, euskararen biziberritzerako lan-ildo eta ikuspegi aktibo bat abian jartzen dituenean, auzoaren euskalduntze bat gertatzen da, eta horrekin auzoaren eraldaketa bat.

5. 2040 urterako desiratzen duguna eta horretarako palankak

Oraintxe bertan gizarte-eragile askoren aldarrikapenak dira, baina gure egingo ditugu aldarrikapen horiek eta irudikatuko 2040 urtean beste eszenario baten aurrean egongo garela. Eszenarioen eraikuntza plangintza estrategikorako tresna eraginkorra dela aipatu izan dute (Addison eta Ibrahim, 2013) eta eszenarioa eraikiko dugu euskal eskolarentzako ere.

Eszenario horretan ez da ghetto eskolarik egongo eta Euskal Eskola Publikoak (ez soilik Euskal Autonomia Erkidegokoak, jakina) helburu bikoitz hori lortuko du erabat, hots, euskararen biziberritzearen motorea(go) bilakatzea eta euskal gizartearen integrazioa bultzatzea. Horretarako, hiru aldaketa gertatu beharko lirake euskal eskolen barruan: lehenik, etorkin jatorriko ikasleak modu orekatuan banatuko dira ikastetxe guztietan, ghettoak ekidinez; bigarrenik, D eredu unibertsalizatuta egongo da, hizkuntza ghettoak ekidinez; eta hirugarrenik, D eredu bakar horrek ikasleen % 100 euskaldundu eta aktibatuko ditu.

Joerak oso aldakorrek dira hiru gai horiek kontuan hartzen baditugu, baina uste dugu eszenario lorgarria dela. Horretarako, baina, palanka batzuk beharko ditugu, edo beste era batera esanda, desiratutako eszenario hori desblokeatzeko beharrezkoak diren hiru ekinbide. Horietatik lehena Eusko

Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren politika aldaketa da, ez baitu jakin gaur egungo egoera hau aurreikusten eta motel erantzuten ari baita segregazioaren eta euskara mailaren beherakadari. Bigarren ekinbidea lehenarekin lotuta dago, gizarteak, eta honen baitan txertatuta dagoen hezkuntza-komunitateak, euskalduntzea-integrazioa bikotea jarri beharko bailuke lehentasun gisa. Hirugarren palanka, ostera, irakasleen formakuntza da, beraiengan zama gehiegi jarri dugulako eta unibertsitate-prestakuntzak gabezia batzuk dituelako etorkizuneko irakasleak trebatzerako orduan.

6. Eskola-eredu honen garapenean zeresana duten kapitalak

Hezkuntza funtsezkoa dugula esaten denean ez da aparteko gauzarik esaten, izan ere, hezkuntzaren garrantzia berebizikoa da komunitate, gizarte, nazio eta herrialde ooren bizindar eta etorkizuneari. Horregatik uste dugu benetan lerro hauetan irakurtzen ari zaretenak merezi duela, eta e5-en hiztegira ekarriz, inbertsio bat beharrezkoa duela. Gogoratu dezagun sei kapital mota aipatu ditugula prozesu honetan zehar, eta esan genezake gutxi-asko seirek dutela eragina hezkuntzan. Ekonomikoa azkar-azkar aipatuko dugu, ez baita finantziario arazoa, baizik eta finantziatzen den hori zer nahi dugun baizik: publikoa (denona eta anitza) edo ekimen pribatua (barnean dituen ñabardurak aintzat hartuta).

Kapital politikoan inbertitu behar da, aurreko lerroetan aipatu dugunak adostasun politikoa eskatzen duelako, baina inbertsio horren emaitza atxikimendu eta parte-hartze politikoa areagotuko duen gizartearen integrazioa litzateke. Giza-kapitalean ere inbertitu beharko genuke, ikasle eta irakasle trebatuagoak nahi ditugulako, baina eskola-eredu honek belaunaldi berriak euskaraz eta kulturartekotasunean heziko baditu, ez al dago hori baino inbertsio mesedegarriagorik? Gizarte-kapitala ere ildo honetatik doa, izan ere, kohesionatutako gizarte bat dugu helburu, nahiz eta horretarako aldarrikapen, bilera eta sukaldeko-lan asko dugun egiteko. Kapital kulturala ere ageri da kinka honetan, euskal kultura transmititzeko gune garrantzitsua (izango) baita eskola-eredu hau. Bukatzeko, eta ikusita euskaldunok ditugun azpiegiturak, izan erakundeak, izan eskumenak, izan elkarteak, ditugun azpiegitura horien arteko elkarlana beharko litzateke dugun beste azpiegitura funtsezko bat indartzeko: gure eskolak.

Eranskina: egilearen tesiaren zertzelada nagusiak

“Jabekuntza, irakaskuntza eta hizkuntzaren erabilera. Euskara, elebitasuna eta eleaniztasuna” (IT983-GIV15-129) ikertalde egonkortuko kidea da Beñat Garaio Mendizabal doktoregaia. Euskal Herriko hizkuntzen, eta bereziki euskararen jabekuntza, ikaskuntza eta irakaskuntza eleanitzaren ikerketan ibilbide luzea duen ikertaldea da. Itziar Idiazabal UPV/EHUko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Sailari atxikia dagoen ikertaldearen sortzailea eta Ikerlari Nagusia da, eta zuzendaria, berriz, Marijo Ezeizabarrena da. ELEBILAB gisa izendatua den ikertaldeak ibilbide luzea egin du euskal haur eta gazte elebidunen hizkuntza jabekuntza eta euskal irakaskuntza elebidun eta eleanitza aztertzen eta hain juxtu, hor kokatzen da Beñat Garaioaren tesi egitasmoa.

Testu honetako lehenengo ataletan plazaratu dugun egoeratik abiatuta, euskararen biziberritzea eta gizarte ireki eta (ele)anitz baten osaketa posible egiten duten eskolak eta euren ezaugarriak identifikatu nahi dira lan honetan. Helburu orokor hau lortzeko, ordea, errealitate horren aldagai zehatz batzuk aztertu beharko ditugu lehenik eta behin, eta horretarako, bi dira tesi egitasmo honetan zehaztutako helburuak, zeintzuk helburu orokor horretara iristeko pentsatuta dauden:

- Euskara eleaniztasunean irakasten duen eskola kasu arrakastatsuak identifikatzea, hezkuntza sistemako eragileen hautaketa intuitibotik abiatuta.
 - Identifikazio intuitibo hori ahalbidetu duten parametroak zeintzuk izan diren ebatzi eta hautaketa horri oinarri enpirikoa eman. Horretarako bi kasu azterketa egingo dira, hau da, Gasteizen kokatutako D ereduko bi eskola “ghetto” aztertuko dira.
- Hautagaiaren ikerketa taldeak landu izan dituen eremuetan oinarrituz, hautatutako eskola horietako baldintzak aztertuko dira. Zehatzago esanda, ikasleen hizkuntza gaitasunetan bilakaera (Díaz de Gereñu eta García Azkoaga, 2016), irakasleen baliabide didaktikoak (Dolz & Idiazabal, 2013) eta ikasle-irakasle eta komunitateko kideen hizkuntza jarrerak eta praktikak (O’Rourke et al. 2015) aztertuko dira lan honetan.

Eskola eta eleaniztasunaren inguruko tesi egitasmo honek oinarri enpirikoa du. Gorago aipatu diren aldagaiak aztertu ahal izateko metodoak eraiki eta finkatu beharra dago alde zuzenetik, hala nola ikasleen hizkuntza gaitasuna, irakasleen iritzi, jarrera eta praktikak eta familien hizkuntza politika aztertzeko erabili beharreko metodoak. Hizkuntzen didaktika, soziolinguistika eta hizkuntza politikan kokatzen diren lan ugari argitaratu dira esparru akademikoan, eta ezinbestean horiek dira ardatz lan honetarako ere. “Eskola arrakastatsu” baten aldagaiak identifikatzeko aztertu beharreko faktoreak konplexuak dira, eta eragileak, anitzak.

Ondorengo lerroetan ageri da tesi egitasmo honen lan-plangintza:

1. Ikastetxeen eta aztergai izango den populazioaren aukeraketa. Ikerketa gauzatzeko hitzarmenak adostea; helburuak eta lanerako ibilbidearen zehaztapena (eginda)
2. Gaitasun eleanitzak bermatzea ahalbidetzen duen hizkuntza tratamendua eskolan behatzeko metodologia eraikitzea:
 - a. Komunitateko kideen hizkuntza jarrerak aztertzeko galdetegia garatzea, bi multzoen hizkuntzekiko eta bereziki hizkuntza gutxituarekiko jarrerak ezagutzeko (eginda)
 - b. Ikasleen euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-mailaren bilakaera aztertzeko metodologia garatzea (eginda)
3. Datu bilketa eta tratamendua:
 - a. Hizkuntza jarreraren galdetegiak, aplikatu, transkribatu eta aztertu bi eskoletan ikasle, irakasle, hezitzaile eta familiei (eginda)
 - b. Ikasleen hizkuntza maila aztertzeko tresnak aplikatu bi eskoletan
 - i. Umeen euskara eta gaztelaniako ahozko ekoizpenak neurtu bat-bateko narrazioei bitartez (eginda)
 - ii. Eskolako ebaluazio-diagnostiko eta antzeko datuen arteko konparaketa longitudinal bat egin, datu ofizialak baliatuz
 - c. a eta b.i eta b.ii puntuetan jasotako emaitzen triangulazioa eta ondorioen idazketa
4. Jasotako emaitzen erredakzioa eta zabalkundea

Bibliografía

- Addison, A. eta Ibrahim, M., (2013). *Participatory scenario planning for community resilience*, London: World Vision UK.
- Basté García, D. (2015). "Repensar la Indagación Apreciativa desde la perspectiva de su plasticidad", doktoretza tesia Facultad de Comunicación y Relaciones Internacionales (Universitat Ramon Llull).
- Botello, B. et al. (2013). "Metodología para el mapeo de activos de salud en una comunidad" in *Gaceta Sanitaria*, 27(2) zenbakia, 180-183 orrialdeak.
- Gorter, D.; Zenotz, V.; Etxague, X.; Cenoz, J. (2014). "Multilingualism and European Minority Languages: The case of Basque", in Gorter, D. Eta Cenoz, J. (edk.) *Minority Languages and Multilingual Education*. New York: Springer.
- Idiazabal, I. (2011). "Migraciones y diversidad lingüística en el País Vasco" in Julio Hernández Borge & Domingo L. González Lopo (Eds.) *Migraciones e interculturalidad. Los hechos y las políticas*. Santiago de Compostela: Publicacións Universidade de Santiago de Compostela, 113-130.
- Kasares, P. (2012). Euskaldun hazi Irunean. Inguru erdaldun(du)etako familien hizkuntza elkarrekintzak eta komunitate aukerak, *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 85(4), 143-15 orr.
- Kraus, P. (2008). *A Union of Diversity Language, Identity and Polity-Building in Europe*, Cambridge.
- May, S. (Ed.) (2013). *The multilingual turn: Implications for SLA, TESOL and bilingual education*. New York: Routledge.
- Ortega, A.; Amorrortu, E.; Goirigolzarri, J.; Urla, J. (2016). *A Union of Diversity Language, Identity and Polity-Building in Europe*. Bilbo: Deustuko Uniberts.
- Schwartz, M. & Verschik, A. (2013). (Eds). *Successful family language policy: parents, children and educators in interaction*. Series Multilingual Education. Dordrecht, Netherlands: Springer.
- Uranga, B. et al. (2008). *Hizkuntzak eta immigrazioa*, Bilbo: Unesco Etxea.
- Valcarce Fernández, M. (2011). "De la escuela integradora a la escuela inclusiva" in *Innovación Educativa*, 21. zbk, 119-131. orr.
- Zalbide, M. (1998). "Normalización lingüística y escolaridad: un informe desde la sala de máquinas" in *Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkaria* 43, 2, 355-424.

Oharrak

1. Ekarpene hau poster moduan aurkeztua izan zen Gasteizko kongresu saioan.
2. EHUko ELEBILAB ikerketa taldeko eta Eusko Ikaskuntzako e5 talde eragileko kidea.